

2/25

irizpena

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikagarri zaien enplegurako pizgarriak arautzen dituen

dekretu-proiektuari buruzkoa
Bilbo, 2025eko martxoaren 19a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 2/25

I.- AURREKARIAK

2025eko otsailaren 26an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, *“diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikagarri zaien enplegurako pizgarriak arautzen dituen dekretu-proiektuari”* buruzko txostena eskatu zuten, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultagai dugun arauaren xedea da, 1. artikuluan azaltzen denez, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren araudian jasotako enplegurako pizgarriak aplikatzeko baldintzak arautzea, neurri gisa, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen prestazioa bateragarri egin ahal izateko prestazio horien eskatzaileen eta onuradunen norberaren konturako lanaren edo jarduera ekonomikoaren errentekin. Horretarako, zenbateko batzuk deskontatzen dira norberaren edo besteren konturako lanetik datozen diru-sarrerak zenbatzean, dekretu honetan ezarritako moduan eta baldintzetan.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Batzordeko Oso Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia emateko eta horiek guztiak lan-batzordean landu daitezzen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera.

2025eko martxoaren 11n, Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen Batzordearen Osoko Bilkuran lantzeko. Han gehiengoz onartu zen.

II.- EDUKIA

“Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikagarri zaien enplegurako pizgarriak arautzen dituen dekretu-proiektuak” honako hauek jasotzen ditu: zioen azalpena, bi artikulua, xedapen gehigarri bat, iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azkeneko bi.

Zioen azalpenak dioenez, errenta bermatuen euskal sistemak hasieratik ezarri du norberaren lanetik edo norberaren konturako jarduera ekonomikotik datozen diru-sarreraren zati bat ez zenbatzeko aukera, prestazioak enplegua lortzeko eta enpleguan jarraitzeko ekar lezakeen pizgarririk eza saihesteko xedez. Xedapen hori erregelamendu bidez garatu zen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2001eko otsailaren 14ko Aginduaren bidez. Agindu horrek oinarritzko errentaren titularren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunen enplegurako pizgarriak ezarri ditu.

Dekretu-proiektuak azaltzen du, halaber, hogeitau urte baino gehiago igaro direnez onetsi zenetik, beharrezkoa dela edukiak berrikustea eta eguneratzea, kontuan hartuta aldi horretan araudian, ekonomian eta gizartean eman diren aldaketak, bai eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren ebaluazio-txostenetan bildutako ebidentziak ere. Horietan antzeman egin da ereduak izandako arrakasta, inpaktu positiboa erakutsi baitu enplegura iragateko aukeran eta eskuratzen den enpleguaren kalitatean. Aldi berean, hobetu beharreko zenbait eremu ikusi dira, eta, horien artean, nabarmentzekoak dira pizgarriak indibidualizatzeko formulak garatzea, familia-egituren bilakaera kontuan hartzea, bereziki, guraso bakarreko familien egoera, eta sistema hobeto ulertzen laguntzea.

Araudiaren aldetik, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko abenduaren 22ko 14/2022 Legeak, 40. artikuluan, aurrekoetan bezala, xedatu egin du bateragarri egin daitezkeela diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eta prestazioaren eskatzaileen nahiz onuradunen norberaren konturako lan-errentak edo jarduera ekonomikoa, erregelamendu bidez ezarritako mugekin. Alabaina, errotikako aldaketa gehitu du pizgarri horien ikuskeran, mugagabe gisa eratzen baititu, lan-merkatuan mantentzearen pizgarririk eza, aldi baterako iraupenak sortua, ezabatzeko.

Eta Dekretuak proposatzen du lan-errentetatik datozen diru-sarreraren tratamendu diferentziala ezartzea; hau, gutxienez, bi arrazoiengatik justifikatzen da. Lehenengoa, diru-sarrera txikiengatik pobreziaren atalasea gainditzea lortzen ez duten pertsona landunen fenomenoaren iraunkortasunari heltzea. Bigarrena, lanetik datozen diru-sarrerak gora doazen heinean prestazioa proportzionalki murriztea dakarren enplegurako pizgarririk eza gainditzea.

Dekretu honetan araututako bateragarritasun-eredu berriak honako hauek ditu, besteak beste, helburu nagusi:

- a) Diru-sarrera txikiak dituzten langileentzako laguntza-politika mantentzea eta, familia handiagoen kasuan, hobetzea. Horrela, ereduaren estaldura handiagotuko litzateke.
- b) Moneta-pizgarriak enpleguan parte hartzeko ala ez hartzeko banakako erabakian zentratzea, bai eta lan egindako ordu-kopuruaren inguruko hautu pertsonalean ere.
- c) Genero-ikuspegia inplementatzea, bikoteetako bigarren kideek (batez ere emakumeak dira) enpleguan parte hartzeko pizgarrien bidez eta guraso bakarreko familiak (gehienak emakumeak) lan-merkatuan sartzeko laguntza ekonomikoaren bidez.
- d) Lana eskuratzeko faltaren egoerak murrizten laguntzea, bateragarritasun-ereduaren gardentasun eta ulergarritasun handiagoaren bidez.

Horretarako, bateragarritasun-eredu berria hobari orokor baten inguruan egituratzen da, ehuneko gisa adierazita, lanetik datozen bizikidetzaren diru-sarreraren gainean. Hobari horri zenbateko finkoko banakako hobari bat gehitzen zaio. Banakako hobari horren zenbatekoa desberdina da pertsonaren lan-intentsitatearen arabera. Horren osagarri, guraso bakarreko familien kasuan, hobari bat ezarri da, zenbateko finkokoa hori ere, haurren hazkuntzari lotutako aukera-kostuari dagokionez. Hobari guztien baturak lanetik datozen diru-sarrerak zehaztuko ditu, baina horiek ez dira zenbatuko diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa kalkulatzeko.

Azkenik, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta lan-errentetatik edo jarduera ekonomikotik datozen diru-sarreraren arteko bateragarritasuna aplikatzea, dekretu honetan ezarritako baldintzetan, aldizkako jarraipenaren eta ebaluazioaren menpe egongo da, eta, kasua bada, baliteke emaitzak goian aipatutako hobarien zenbatekoak aldatzea ekartzea.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Sarrera

Errenta bermatuko edozein sistemak, bizitza duina bermatzeko gutxieneko diru-sarrerak ziurtatzea helburu nagusi izanda, erronka bati egin behar dio aurre: diru-sarrera horiek ezin dira izan, aldi berean,

enplegua eskuratu edo mantentzeko orduan pizgarria kentzeko elementu.

EAEko sistemak beti izan zuen presente dikotomia hori, eta hasieratik saiatu zen hori gainditzeko, bi helburuak lortu ahal izatea ahalbidetzen duten enplegurako pizgarriak ezarriz, biak ere goragarriak: pertsonen gutxienerako diru-sarrerak bermatzea, eta, aldi berean, lan-jarduera bat garatzeko aukera ematea, lan-merkatuan mantendu eta bertatik ez deskonektatzeko, hori funtsezko elementua baita beren garapen pertsonalerako eta gizartean txertatzeko, eta, beraz, aparteko balioa baitu.

Baina pizgarri-sistemaren ikuspegi onbera horrek oreka bilatu behar du berme-errenten eta lan-errenten arteko bateragarritasun-araubidean. Eta oreka hori aldatu egiten da tartean diren faktoreen arabera: testuinguru ekonomikoa, familia-eredua, lan-merkatuaren egoera, inguruabar pertsonalak eta abar. Horrenbestez, enplegurako pizgarrien sistema ezin da zaharkituta geratu eta, gainera, kasu bakoitzean gai izan behar du behar bezala erantzuteko bete beharreko helburu bikoitz horri. Gaia ez da nolana hiko: oreka egokiari eustea da sistemaren eraginkortasuna eta ekitatea bermatzeko modua.

Arauaren balorazio orokorra

“Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikagarri zaizkien enplegurako pizgarriak arautzen dituen dekretu-proiektua” aurkeztu zaigu, haren gaineko iritzia eman dezagun. Arau horrek enplegurako pizgarrien sistema berri bat planteatzen du, egokitzat jotzen duguna, hainbat arrazoren ondorioz:

- Lehenik eta behin, egokia iruditzen zaigu enplegurako pizgarriak berrikusi eta eguneratzeko aukera hau, kontuan hartuta aldi honetan arau-mailan, ekonomian eta gizartean sortu diren aldaketak, bai eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren ebaluazio-txostenetan jasotako informazioa ere.

Hori horrela, gogora ekarri nahi dugu Dekretu honen helburu bakarra enplegua eskuratzeko orduan dirua oztopo deneko egoeretan jardutea dela. Halaber, Jaurlaritzak berak aitortzen du badakiela beharrezkoa dela gainerako mugen gainean jardutea, eta, baieztatzen duenez, gaur egun esperimentazioak burutzen ari dira (esate baterako, ibilbide mistoetako proiektu esperimentalak), Sailaren enplegu-programak diseinatzeko orduan kontuan hartuko direnak.

- Egokia iruditzen zaigu, era berean, antzemandako hobekuntza-arloak jorratu izana Dekretu berrian; besteak beste, pizgarriak indibidualizatzeko formulak garatzea, familia-egituren bilakaera eta, bereziki, guraso bakarreko familien egoera kontuan hartzea, eta zaintzari lotutako gaiei heltzea, betiere genero-ikuspegia aplikatuta.
- Halaber, positiboa iruditzen zaigu arau berriak sistema hobeto ulertzen laguntzea. Horretarako garrantzitsua iruditzen zaigu araua irisgarria izatea zuzenbidezko subjektuentzat. Hori dela eta, “irakurketa errazeko” bertsio bat egitea gomendatzen da, DSBEren erabiltzaileen profil nagusia hezkuntza-maila baxukoa delako eta, beraz, era honetako neurriak ulertzeko zailtasunak izan ditzakeelako. Horrez gain, desgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasuna ere erraztuko litzateke.
- Era berean, pizgarrien izaera mugagabea zehazten duen aldaketa proposa iruditzen zaigu, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 40. artikulua betez, laneko errentetatik datozen diru-sarreraren tratamendu berezia ezartzea proposa

iruditzen zaigun bezala.

Hala ere, gure ustez, arau honek ez ditu proposatutako helburuak beteko, baldin eta ez badu kontuan hartzen, aurkeztu zaigun bezala, profil batzuen estaldura hobetzen dela pizgarrien sistematik kanpo geratu daitezkeen beste batzuen kontura.

Egia da pizgarriak antolatzeko formula berriak tamaina handieneko familien egoera hobetzen duela, baina ez ditu era egokian sustatzen “tamaina handieneko” familien parte ez diren eta diru-sarrerera baxuak dituzten beste langile batzuk; bereziki, pertsona bakarreko unitateak eta kargurako adingaberik ez duten bikoteak.

Batzorde honen iritziz, arau honetan jasotako enplegurako pizgarrien ereduak ez du oinarri moduan hartu behar dagokion hornidura ekonomikoaren birbanaketa, zeinaren arabera profil batzuei pizgarriak emango baitzaizkie beste batzuk baztertu ahala; kontrara, baliabide aski bermatu behar ditu hala behar duten pertsona guztiek behar bezala bermatuta izan ditzaten enplegurako pizgarriak.

Arau-eraginaren memorian baieztatzen denez, *“enplegurako pizgarrien eredu berriak aurreko ereduak zuen aurrekontu-gastuari eusten dio, baina hura bertikalki birbanatuz kide gutxiago dauden etxeetatik kide gehiago dauden etxeetara”*. Gainera, heldu 1 edo 2 daudeneko bizikidetz-unitateen (adingaberik gabe) pizgarrien kasuan, laguntzak galdu egiten direla erakusten du (16. taula). Memoria ekonomikoaren arabera, era berean, *“araudi berriarekin, progresiboa bera, kolektibo batzuei murriztu egingo zaizkie enplegurako pizgarriak, beste batzuei areagotu ahala. Zehazki, kide bateko edo biko bizikidetz-unitateei enplegurako pizgarriak murriztuko zaizkie, bi kidetik gorako unitateei areagotu ahala.”*

Gaia ez da nolana hikoia, Sailaren datuen arabera egun pizgarri horiek jasotzen ari den kolektiboko zati handi bati eragingo bailioke arauak negatiboki¹.

Hori ikusita, eta Dekretuak aitortzen dituen helburuak betetze aldera, gure ustez, argitaratzen den arauak irtenbide bat eman behar dio gai honi, eta bermatu egin behar du DSBE eta GLL jasotzen duten kolektibo guztiek enplegurako pizgarri egokia hartu ahal dutela. Horretarako, finantzaketa nahikoa beharko da, bestalde inbertsio gisa aurreikusitako beharko dena. Horrenbestez, lanetik datozen diru-sarreretatik kenduko den zenbatekoa kalkulatzeko formula (2. artikulua) berrius dadila proposatuko dugu gogoeta berezietan.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

2. artikulua. Kanpo utzitako diru-sarreraren zenbatekoa

Artikulu horren arabera, *“norberaren edo besteren konturako lanetik datozen diru-sarrerak lortzen diren hilean, hobari orokorraren, hobari pertsonalen baturaren eta seme-alaben hazieragatik kostuaren hobariaren arteko baturaren pareko zenbatekoa kenduko da hortik, honako formula honen arabera:*

Deskontatu beharreko zenbatekoa = hobari orokorra + \sum hobari pertsonala + seme-alaben

¹ Memoria ekonomikoari jarraikiz, 2024ko maiatzean lanaren ziozko diru-sarrerak zituzten 12.445 espediente zenbatetsi ziren: horietatik 4.884k kide bat zuten eta 3.146k bi. Guztira 8.030 espediente dira, hau da, espediente guztien % 64,5.

hazieragatiko kostuaren hobaria

...hobari pertsonala diru-sarrerak bermatzeko errentaren oinarritzko zenbatekoaren % 12 edo % 22, bizikidetz-unitateko langile bakoitzaren lan-intentsitatearen arabera, hurrenez hurren, lan-intentsitatea txikia edo handia izatearen arabera..."

Gogoeta orokorretan azaldu denez, arau berriak eragin negatiboak izango ditu familia-mota batzuetan. Hori dela eta, deskontatu beharreko zenbatekoa **kalkulatzeko formula berrikus** dadila proposatzen dugu, pizgarriak bizikidetz-unitate gehiagori aplikatu dakizkien. Horretarako, formula matematikoan lan-intentsitateen hobari-ehunekoak areagotu litezke, bai intentsitate baxuan bai altuan. Hartara, kide bateko edo biko unitateek pizgarriak jasotzen jarraitu ahalko lukete, orain arte bezala.

Bestalde, **lan-intentsitate baxuaren eta altuaren arteko aldea zehazten duen egun-kopurua birplanteatu** beharko litzatekeela uste dugu. Gehiegizkoa iruditzen zaigu lan-intentsitatea altutzat jotzeko beharrezkoa izatea Gizarte Segurantzaren edozein araubidetan hilabeteko 20 egun oso altan egotea, gure lan-merkatuan dagoen partzialtasuna kontuan hartuta, bereziki sektore feminizatuetan. Arau honek, egungo idazkuntzan, ez du egoera hori aintzat hartzen.

Azken xedapenetako lehena. Garapena

"Eusko Jaurlaritzan diru-sarrerak bermatzearen alorrean eskudun den sailburuari ahalmena ematen zaio 2.1 artikulua aldatzeko, ehunekoaren balioari eta lan-intentsitatearen maila zehazteko kontutan hartu beharreko egun-kopuruari dagokienez".

Dekretu honetan arautzen diren enplegurako pizgarriak kalkulatzeko formulari jarraipen jarraitua eman behar zaio. Hartara, desio ez diren hutsuneak zuzendu ahalko dira lagundu nahi diren kolektiboen gainean. Halaber, gure ustez, edozein aldaketak balorazio eta prozedura arautua bete beharko litzuzke.

Hori dela eta, **xedapen hori ezabatu** dadila proposatzen dugu.

IV.- ONDORIOA

Kontuan hartuta arau oso egokia eta beharrezkoa dela, EGABen ustez *"diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikagarri zaizkien enplegurako pizgarriak arautzen dituen dekretu-proiektua"* behar bezala izapidetuko bada, Zuzentarau honetan aipatutako alderdiak kontuan hartu beharko dira.

Bilbo, 2025eko martxoaren 19

OE Presidentea

Idazkari Nagusia

Javier Muñecas Herreras

Izaskun Astondoa Sarria